

# uztarria

///Azpeitiko herri aldizkaria///2010eko abuztua///120. zenbakia///



## UMOREZ BLAI

Gaztetxearen bosgarren urteurrena  
Urola ibaian egindako baltsa  
jaitsierarekin ospatu zuten 16



GARBIGAILU GARANTIADUNA NAHI BADUZU,  
ORAIN DUZU AUKERA!

**105 €-KO DESKONTUA**  
**ZAHARBERRITZE PLANAREKIN**  
eta gainera 20 urte arteko  
iraupeneko makinak

## Miele



MAKINA GOGORRAK



ERRAZ ERABILTZEKO MAKINAK

**ZAHARBERRITZE PLANA = "RENOBE PLANA "**

**DESKONTUAK:**

- KOMBIAK 125 € arteko deskontua
- GARBIGAILUAK 105 € arteko deskontua
- INDUKZIO PLAKAK : 105 €-ko deskontua
- ONTZI-GARBIGAILUAK : 85 €-ko deskontua

ABUZTUAN GOIZETAN IREKITA 16-tik 18-ra izan ezik  
**ONDO PASA SANINAZIYUEK...**



**IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN**

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

## uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behe,  
(Azpeitia, 20730)  
**Telefona eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
uztarria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 120.a (2010eko abuztua)  
**Urtea.** XII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730 792 /  
oalegria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerok  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Orkatz K.E.  
**Web orrialdea.**  
[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarrria herri aldizkariaren  
laguntzaileak** (erakunde  
publikoak)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



**Uztarriak**



**Oharra.** Uztarrria  
Komunikazio  
Taldea ez du  
bere gain hartzen  
herri aldizkariaren  
adierazitako  
esanen eta  
iritzien  
erantzukizunik

## 2010EKO ABUZTUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



### iritzia

**Inkesta.** Zer gehitu edo  
kenduko zenuke  
saninazioetan? **13**

### mamia

**Saninazioak** Festek  
izan duten bilakaeraz,  
hiru belaunaldirekin **20**  
**Blai.** Naiart serigrafia  
tailerrak sortu duen  
marka **24**  
**Bai Euskarari**  
**Ziurtagiria.** Sustapen  
kanpaina berriaren  
atarian **04**

### jakiteko

**Karmen Arozena.**  
Urrestillako ikastola  
zenaz eta gehiago **34**

**Ba aL dakizu** hiri antoLamenduaren  
pLangintza orokorraren aurrerapen  
dokumentua ikusgai dagoela udalean  
irailaren 20a arte, herritarrek  
iradokizunak egin ditzaten? **Azpeitiko Udala**

**egin zaitez bazkide Uztarrarian**



943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarraren produktuak ere  
eskuratu dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte  
**12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak  
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.157** bazkide  
**gara** dagoeneko Uztarrarian;  
eskerrik asko denei.

**30** euro dira urtean.  
106.400 euroko aurrekontua  
du Uztarriak 2009. urterako.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)



**E**uskararen erabileran lan munduan ere aurrera egiteko konpromisoak eskatzea eta konpromiso horiek betetzeko egin beharreko urratsak egiten laguntzea. Bakoitzak bere mailan, bakoitzak bere abiapuntutik, eta helburu errealek finkatuz. Pixkanaka, baina etengabe. Asmo eta helburu horiekin sortu zuen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria 2000. urtean. Euskal Herri mailako hedapena du ziurtagiriak. Azpeitian ere badu oihartzuna. Momentu honetan, 36 dira Bai Euskarari Ziurtagiria duten herriko eragileak.

Gorabeheratsua izan da, nolanahi ere, ziurtagiriak Azpeitian hamar urteotan izandako ibilbidea. Ziurtagiria Bai Euskarari Akordioaren baitan sortutako erreminta izan zen, eta akordio hura, herri osorako plan estrategikoa garatzea helburu zuena, izan zen 2000. urte inguruan Azpeitian finkatu nahi izan zena. Baite Euskara Elkartea ere garaitu hartan sortu zen herrian eta, Kontseiluarekin harremanetan, Udalak Bai Euskarari Akordioaren aldeko apustua egitea erdietsi zuten. Gutxi iraun zuen, ordea, adostasunak; Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) etorri zen 2001ean, EAE mailakoa hau, eta Udala horri lotu zitzaion, Kontseiluko plan estrategikoa garatzearen aukerak zapuztuz.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren egitasmoa izan zen herrian aurrera egin zuena. Hasiera-ko urteetan, jarraipen teknikaria zegoen herrian egitasmoa sustatzeko; baina azken ur-



*“Borondate eta jarrera kontua da”*

**BEGOÑA ARROSPIDE (ARROSPIDE OINETAKOAK).** Azpeitian Bai Euskarari Ziurtagiria hedatzen hasi zen garaitik ari da egitasmoan parte hartzen Arrospide Oinetakoak denda. Begoña Arrospideren esanetan, ziurtagiriarekin bat egiteko gonbidapena jaso zutenean “gutziz ados” egon ziren parte-hartzearekin eta ez zitzaion kostatu konpromisoa hartzea. “Benetan ilusioa egin zigun, proiektu horrekin bat egiteak”. Arrospide dendak ‘Zerbitzua euskaraz’ mailako ziurtagiria dauka. Zaila iruditzen zaio Begoña Arrospideri, euren kasuan, hurrengo mailara, ‘Zerbitzua eta lana euskaraz’ mailara, alegia, jauzia ematea. “Hurrengo pausoak zailtasun handikoa da guretzat. Adibidez, aseguru polizarekin-eta arazoak genituzke, dena erdaraz egiten dutelako”.

Hala ere, Bai Euskarari Ziurtagiria “tresna oso baliogarria” iruditzen zaio Arrospideri euskararen erabileran aurrerapausoak emateko, “euskaldun bezala, eta herrikide sentitzen bazara”. Azken batean, horrelako proiektu batekin konprometitzea “borondate eta jarrera kontua da”, Begoña Arrospiderentzat. “Eta ez digu aparteko ahaleginik suposatu”, gaineratzen du, urtetik urtera ezartzen joan diren helburuetara iristeak endredorik eragin al dien galdetuta.

# Euskara ziur landu

Hamar urte bete ditu Kontseiluak sortu zuen Bai Euskarari Ziurtagiriak. Udazkenean sustapen kanpaina berria egiteko asmoa dute. 📌👁️ Mailo Oiarzabal



## “Ez dakit jendeak garrantzia ematen dion”

**JOXE LUIS LEGARDA-EREÑO (KOOP. LEGARDA).** Legarda altzari dendakoek ere hasieratik egin zuten bat Bai Euskarari Ziurtagiriarekin. Joxe Luis Legarda-Ereñok dioenez, “akuilu lana” egin zuen ziurtagiriaren prozesuak beraien negozioari dagokionez. “Aurretik bagenuen esku artean aurrekontuak-eta euskaraz egiten hasteko asmoa, baina... Ziurtagiriarekin, ‘derrigortuta’ bezala hasi ginen egiten”. Hasieran “oso gustura” ibili zirela kontatzen du Legarda-Ereñok, “baina, egia esan, ez dakit jendeak kontu honi horrenbesteko garrantzia ematen al dion. Hasieran aurrekontuak bi hizkuntzatan bidaltzen genituen. Gero, galdetzen hasi ginen, euskaraz ala gaztelaniaz nahi zuten. Eta jende askok eta askok erdaraz jasotzea aukeratzen zuten, ohitura kontuagatik, edo errazago egiten zitzaielako... Gaur egun, ez dugu galdetzen eta euskaldunei euskaraz bidaltzen dizkiegu gauzak”. Legardakoak ere ‘Zerbitzua euskaraz’ mailan daude eta, Arrospide dendakoen antzera, ez dute bate-re gertu ikusten zerbitzuaz gain lana ere euskaraz egitearen aukera. “Gure produktuak eta hornitzaile gehienak atzerrikoak dira eta zaila da, nahi izan arren. Nik posta elektronikoz mezuak hasi eta bukatu beti euskaraz egiten ditut, baina tarteko edukia beti joaten da erdaraz”.

teotan ez da horrelakorik izan, Udalak bere merkataritza katalogoan ziurtagiriaren berri eman izan duen arren.

### Saio berria

Mikel Arregi Uztarriako kide ohiak gertutik bizi izan zituen ziurtagiriak Azpeitian eman zituen hasierako pausoak. Garai bateko indarrik gabe ikusten du gaur egun, “neurri handi batean euskalgintza ere lehen baino apalago dagoelako eta atzetik ere jendeak lan gutxiago egiten duelako”. Arregirentzat “arazoa” da Azpeitian “jendeak pentsatzen duela denok euskaraz bizi garela”, eta hori ez da horrela. Ziurtagiria “tresna oso ona” dela iruditzen zaio, “baina kontzientzia lantzen duen eragile bat ez dagoen bitartean, zaila da aurrera egitea”.

Egitasmoari Azpeitian bultzada berriua eman nahian dabil Ziurtagiriaren Elkarteak, 2007an ziurtagiriari dagozkionak kudeatzeko sortutako erakundea. Sustapen kanpaina berria egiteko asmoa dute eta, oraindik xehetasunak guztiz lotu gabe badituzte ere, Udaleko Euskara Patronatuarekin harremanetan ari dira, kontua bideratzeko. Ziurtagiriaren Elkarteak Arkaitz Illarramendiren esanetan, akordioa lantzen ari dira Patronatuarekin, “uda ondoren hedapena egiteko”. Ziurtagiriaren Elkarteak teknika bat jarriko du eta, abiatu nahi duten sustapen kanpaina horren barruan, Bai Euskarari Ziurtagiria ez daukaten “ehun entitate inguru” bisitatu nahi dituzte. Aurretik “girotze lan bat” egitea da asmoa eta, kanpainari amaiera emateko, urteroko ebaluazioarekin bat eginez, ekitaldia egitea.\*

### 36 ERAGILE

||| **Abelur Koop. Elk.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Agirre Oparidenda.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Amenabar Denda.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Arrospide Oinetakoak.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Lagunak Autoeskola.** Euskararen bidean. ||| **Kimu Bat, SL.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Bankoa, SA-Azpeitia.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Bapi.** Euskararen bidean. ||| **Disdira Bitxitegia.** Zerbitzua euskaraz. ||| **ELA Sindikatua-Urola Kosta.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **EREGI, Euskara eta Komunikazioa.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **Etxahun.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **Giabeko EM.** Zerbitzua euskaraz. ||| **GIFE-Gipuzkoako Frisoi Elkarte.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **GITXEZEL-Gipuzkoako Txerrizaleen Elkarte.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **GOE-Gipuzkoako Oilozainen Elkarte.** Zerbitzua euskaraz. ||| **GUREKO-Gurekin Kontatu Koop.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **HEBE-Herri Behi Elkarte.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **Iturralde Iturgintza, SL.** Zerbitzua euskaraz. ||| **JB Sansebastian.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Jone eta Maikar, SL.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Juan Martin Intxausti Harategia.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Katuka.** Euskararen bidean. ||| **Koop. Legarda.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Lagun Onak MB.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Landatek Bulego Teknikoa, SLL.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **Landetalan Bat Zerbitzuak, SL.** Zerbitzua eta lana euskaraz. ||| **Lazkano Olaizola Aholkularitza Inmobiliarioa.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Loiola Sukaldeak.** Euskararen bidean. ||| **Luba Aholkularitza.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Mugi Kirolak.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Ongi-Etorri Jatetxea.** Euskararen bidean. ||| **Osatuz Fisioterapia Zentrua.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Otamendi Erloju eta Bitxi Denda.** Euskararen bidean. ||| **Urrestilla Jantzi Denda.** Zerbitzua euskaraz. ||| **Uztarria Komunikazio Taldea.** Zerbitzua eta lana euskaraz.

# Herriko festak denontzat?

# U

rtero bezala lñaki Deuna (nahiz eta lñigo zen bere jatorrizko izena) azpeitiar unibertsalaren omenez ospatuko diren festak gor-gor hastear daude. Gure herriko festa nagusiak dira eta uztailak 31 dute egun nagusi bezala, 1556. urteko egun horretan zendu baitzen lñaki Deuna Erroman.

Baina ez nahiz askotan hain kontrajarria izan den pertsonaia honi buruz idaztera etorri, bere omenez ospatzen diren festen izaerari buruz baizik. Festa hauen jatorria XVII. mende hasieran aurkitzen dugu eta gizarte ekimen guztiak bezala denboran zehar bilakaera handia izan dute. Gauza bat da aldatu ez dena: azpeitiarren festa gosea. Festa gose eta desio hauek asebetetzeko Azpeitiko Udalak ekimen ugari antolatu du mende hauetan zehar, zenzenketak, hurrenez hurren.

Herriko festak herri baten izaeraren erakusgarri dira eta, nola ez, egia da Azpeitia kutsu erlijiosoko eta zezenzale askoren bizileku izan dela. Baina, ezin ukatu, aldi berean, gure herria asko aldatu dela eta horren isla izan da herriko festen izaerak eta antolaketa jasandako bilakaera. Horrela, jada 1957an desagerturiko OARGI kultur taldeak Umeen Eguna deritzona antolatu zuen, 1976. urterarte ospatu zena.

Baina haurrez gain herriko gazteak ere bere parte-harte nahi izan dute herriko festa nagusi hauetan. Hau lortzeko bidea ez da erraza izan eta askotan oztopo ugari gainditu behar izan dituzte. Horrela, gogoan ditut 1990eko hamarkadatik aurrera herriko eragile desberdinek abian jarri zituzten hainbat ekimen. Hor ditugu gaur egun hain erroturik dauden Herri Bazkaria edo Bakailau Txapelketa horren testigantza bezala.

Gaur egun bada urtero herritar denon parte-hartzea sustatzeaz eta ekimen desberdinak antolatzeaz arduratzen den talde bat eta ezin ukatu aurreko belaunaldiak egindako lana abiapuntutzat hartuta beraien ekime-



■■■■■■■■■■markel mendizabal■■■■■■■■■■

■■■Partehartzea, aniztasuna...  
nahi dituen herriak ezin ditu  
festa nagusiak tradizioaren  
morroi bihurtu

na modu eraginkor batean daramatela aurrera.

## Tradiziotik festa herrikoietara

Tradizioak kolokan jartzeak beti beldurra sorrarazi baldin badu ere ez da ahaztu behar berauek mantentzea eta herriko festei izaera herrikoa ematea posible dela. Horrek izan behar du gainera helburua.

Horrela, parte-hartzea eta aniztasuna kudeatu nahi dituen herri batek ezin ditu bere herriko festa nagusiak iraganeko tradizioaren morroi bihurtu. Ez daukat zalantzarik, gainera, gure artean ditugun etorkinek ere gu bezalaxe parte hartu nahiko dutela gure ospakizunetan. Horrek aldaketak ekarriko ditu? Ziur baietz, baina aldaketa, adostasunarekin eta etorkizuneko ikuspegiarekin egiten baldin bada, beti ongietorria da.

Ea lortzen dugun denon iritzia eta ikuspuntuak uztartzea eta Saninaziyuek denen topaleku bihurtzea. Kontuak kontu, ondo pasau saninaziyuek eta gozatu, merezi dugu eta hain urte gogorra izan den honetan!✱







ondo pasatu



**SANINAZIYUEK 2010**

400 urteko festa azpeitia





# Herritik eta herriarentzat

# U

da festa garaia da Euskal Herriko txoko askotan, eta Azpeitia ez da atzera gelditzen. Uztailaren bukaeran festa giro ederra izaten da herrian. Denok izaten gara festarako prest; ume, zahar eta gazte. Denak izaten gara festaz gozatzeko gogoz. Bakoitzak bere erara bizi ditu festak, eta bakoitzari gustatzen zaionaren arabera ibiltzen gara festan.


Festa, ordea, festak antolatzerako garaian hasten da. Antolaketa ere elkarlana eta giro ona badira, askoz hobe. Baina gurean, beste festa klase bat izaten da, gehienetan. Oinarrian, festak ulertzeko modu ezberdinak daude. Eta bere horretatik gauzak aldatzeko gogo eta borondate gutxi.

Festak egun gutxi batzutan desberdintasunak alde batera utzi, eta denok batera, giro onez, herriak nahi bezalako festak egiteko garaia dira. Aurten ere, urtero bezala, Udalak egin zuen festak antolatzeko bilera, maiatza aldera. Ordurako festak erdi antolatuta izaten dira, ordea. Bai alde batean, zein bestean. Elkarren berri izan eta elkar ez zapaltzeko ahalegina egiten da, ez gehiago eta ez gutxiago. Baina hori ez da festak bakar batzuk egiteko ahalegina. Hori, bi festa eredu, festak egiteko bi modu, puzzle baten moduan osatzea da. Baina oinarrian ez da ezer aldatzen.

Azpeitiak herri-gutuna jaso zuela 700 urte betetzen dira aurten, 400 urte San Inazio Azpeitiko protroi izendatu zutela.... Urteurren asko ospatu nahi dituenarentzat. Ospatzekoak iruditzen zaizkienentzat. Urte asko ere badira saninazioak antolatzen direla herrian, baina oraindik ere asko dago ikasteko. Eta nire ustez, aldatzeko.

## Parte hartzea sustatuz

Beti iruditu izan zait gauza xelebrea saninazioetakoa. Herriko festa guztietan (sansebastianak, karnabalak...) herritarren parte hartze handia izaten da. Herritarrek izaten



■■■■■■■■■■**ihintza agirretxe**■■■■■■■■■■

■■■Eskertzekoa da batzuk besteok gozatzeko hartzen duten lana. Jartzen dioten gogo eta indarra

dira festen protagonista nagusiak.

Baina saninazioetan beti arazoak horretarako. Herritarrok pasibo bihurtu eta eguzkiak tontotuta bezala besteek egindakoari so geldirik. Hala ere, Festa Herrikoien Aldeko Batzordeak ez du inoiz etsi. Urtez urte hor aritu da lanean gure herriaren, herritarren, tamainako festak antolatzen. Eta azken urteotan gauza eta ideia ugari landu dituzte.

Hala sortu ziren ekimen berriak. Hala sortu zen bakailo txapelketa. Hala sortu ziren beste hainbat eta hainbat ekimen. Eta horrela sortu dira herritik eta herritarrentzat antolatutako festak. Denok gozatzeko moduko festak, eta denon eskura dauden festak.

Lan nekeza batzutan, esker gutxikoa bes-tetan. Dena saninazioetan jendea gozatzen ikusteko. Eskertzekoa da batzuk besteok gozatzeko hartzen dute lana. Jartzen dioten gogo eta indarra.

Eskerrikasko ba guztioi aurtengoa ere egindako lanagatik, eta marea *roxak* har dezala Azpeitia! ✖







euskara eta komunikazioa

### **Euskara Zerbitzua**

Itzulpenak, zuzenketak eta euskara planak

### **Komunikazio Zerbitzua**

Diseinua: logotipoa, papertegia, aldizkariak, iragarkiak...

Komunikazioa: prentsa bulego lanak, komunikazio kanpainak...



goiko kalea 5, 3A · tel.: 943 08 06 88 · 20730 azpeitia  
e-posta: eregi@eregi.net



|||HIZKUNTZ ESKUBIDEAK||||||||||||||



**GORA.** Oharrak euskaraz.

Bejondeiola erakuslehioan ohar hau euskara hutsean egitea erabaki duen sukalde saltzaile honi. Euskararen ofizialtasuna lortzeko bidean urrats ederra! 🍷 **Uztarria**

**BEHERA.** Hobetzea batere 'h'-rik gabe.

Krisiak gogor jo izanagatik ere, Espainiako Gobernuak dirutza gastatzen segitzen du horrelako karteletan. Euskaraz txukun idatziko balu, gaitzerdi. 📌 **Uztarrria**✳️



Jagoba Beobide

|||ESANA DAGO|||||||

III “Esperientzia berria izango da, hiriburuko taldea da Cordoba eta talde handia gainera”

III “Alde egitea  
gogorra egingo zait,  
baina ohituko gara.  
Ea nola joaten den.”

JAGOBÁ BEOBIDE  
futebolaria

III “Proiektua agortu dela jakitea baino gogorragoa da artean bizi-bizirik dagoela sinetsita zauden bitartean kendu nahi dutela egiaztatzea”

**XABIER EUZKITZE**  
ETB-ren 'Kalaka'  
saioko aurkezlea



# kutxa

**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



## Bonjour Urbietta

**Z**er moduz habil txikiye?

Zer moduzkuek dituk frantziar estatuko hotel hoyek? kar, kar, kar. Moldatze al gaituk hizkuntza berrira? Hau dek galdera pilie, poliziyeta ta dana emateiat, ta gendarmiekin nazkauta egongo haizenez laga egingo zoat.

Badituk hilabete batzuk hire berri handirik ez diagula izan herriyen, baina bazakiat familiarren bisitak hasi haizela jasotzen eta pozten nauk danengatik, Ander, Aratz, ama... A, eta Orkatzea idatzi huan lehen eskutitza oso ona, parre batzuk botatzeko baliyo izantzian.

Herriyen zaharrak berri neurri handi batien,

badakik, batzuk beti bezela zenbat etxe ein eitien pentsatzen, beste kontuik eongo ez balitz bezala. Bestaldetik azpimarragarriye iruitzen zitek festak aipatzie, eta ez bakarrik uztailien bukaeran gaudelako, berauek antolau eta parte hartzeko moduengatik, batez ere. Horren adibide atzo bertan ikusi ginean kantu-poteoa Baigerako eta Gaztetxeko jendien artien, politte benetan. Eta ezin ahaztu gure auzoko festak, amona manttangorriren festak, faltan bota hintuguan arren ederki antolau eta berpiztutako festak.

Heurire galderak ein dixkiat eta neure

kontu batzuk kontau beharko dixkiat. Futbollen deskantsu bat hartzie erabaki diat, Lagun Onak futbol taldientzat onena zala pentsauta eta neuk ere pixkat nekauta bukau detelako futbolakin. Bestaldetik, Uztarriako artikulue idaztie ere lagatzekotan nauk, ideak ere gero eta gutxiyo eukitziez gain beste batzui lekue uztie ere ondo baitzeok.

Beno losu besarkada haundi bat euri eta muxu bana kide danai, bereziki herritarrai. Ea laster ikusteko moduen gean eta ea berri onak ditugun herri zahar eta polit honentzat. Maite zaituztegu!✳



aitor zulaika

### IKUSTEKO!



### ▲XOXOTE, NAHI ETA IKUSI EZIN.

Garate Anaia auzoan dago goiko argazkian ageri den banku hori. Xoxotera begira bankuan eseri, eta Izarraizko paisajeaz gozatzerik ez dago, muturren aurrean arbola bat baitago. Askok pentsatu gabe landatu zuten zuhaitza! Pena da horrelako bista eduki eta pare-parean arbusto handi hori sartu izana. ✎ Ainitze Agirrezabala✳







## INKESTA

zer kendu edo  
gehituko zenuke  
saninazioetan?

Ainitze Agirrezabala

### ION ETXEBERRIA

langilea



"Lehen hemen  
egiten zen karting  
lasterketa  
berreskuratuko

nuke eta herriko koadrilen  
arteko herri kirol dema  
antolatuko nuke, Elkartasun  
Egunean bezala. Talde  
berbeneroetan, berriz, ez nuke  
hainbeste diru gastatuko".

### OLATZ AZKUE

langilea



"Hasteko,  
zezenketak  
kenduko nituzke.  
Gazteei, berriz,

ekitaldiak antolatzeak aukera  
gehiago emango nieke eta  
umeei begira ere gauza gehiago  
antolatuko nituzke".

### MAIALEN ARREGI

langilea



"Zezenketak  
kenduko nituzke,  
sufritu egiten dute  
eta pena handia

ematen dit. Gainontzean,  
saninazioak urteko festarik  
onenak dira eta asko  
disfrutatzen dut egun hoietan".

### AINARA BASTARRIKA

langilea



"Txinako suzko  
erroberak jarriko  
nituzke. Bejingo  
joku olinpikoetan

bota zituzten eta ikaragarri  
gustatu zitzaizkidan. Festak  
motxetxoak dira eta pare bat  
egun luzatuko nituzke".

## Zaborra atez ate

Aspaldian dabil gai hau pil-pilean gure hedabi-  
deetan, eta benetan kezkatzen nauenez, hirugarre-  
nez ari naiz honetaz idazten. Atez ateko bilketa oso  
emaitza onak ematen ari dela diote kudeaketa abia-  
tu dutenek, eta moratoria bat eskatzen ari dira  
erraste planta eraiki aurretik. Bitartean, ekintza  
hau edatu nahi dute beste herrietara.

Ekintza hori positiboa izango dela uste izan arren,  
atez ate zaborra biltze horrek ez nau asebetetzen,  
batez ere bi arazo ikusten ditudalako. Bata, ez diru-  
di oso modu txukuna gure etxe hormetan zaborrak  
zintzilikaturik edukitzea, nahiz eta ordutegi bat eza-  
rrita eduki. Bestea, berriz, egun jakinak ipintzea  
zabor mota bakoitzarentzat, eta egun horietan ba-  
karrik utzi beharra. Noski, hondakin asko organiko-  
ak izanik oso toxikoak eta usaintsuak dira, batez ere  
arrain hondakinak. Logikak agintzen digu sarriago  
ustu behar ditugula.

Zalantzarik gabe, modu onena, denok zabor ontzi



### Higinio Oiarzabal

marroiak erabiltzea da. Erabiltzen dugunok jakin ba-  
dakigu, ia bestelako zaborrik ez dela biltzen gure su-  
kaldeetan, eta horren arabera lau ontzi marroi bete-  
ko lirateke gris bakarraren aldean; eta ez alderan-  
tzez, orain arte bezala.

Agintariak gehiago inplikatu beharko lirateke  
eko-hondakin bilketa hau sustatu eta bultzatzen,  
guztion osasuna dagoelako jokoan. Esate batera-  
ko, zabor tasa murrizketa erabiltzaileei (bonifika-  
zioa), ea honela beste batzuk ere animatzen diren  
ahalegin honetan. Axolagabeei, inolako bereizketa-  
rik egiten ez dutenei, kutsadura tasa gehigarri bat  
ezarri, poltsa ukitzeak mugitu arazi egiten gaituela-  
ko.

Jende askok bereizketak egiten ditu etxean: pa-  
pera, beira, plastikoa... baina, hondakin organikoe-  
na ez. Hau da guztietan toxikoen eta konpostatu  
beharrekoena. Ahalegin hori falta zaigu, eta lastima  
da. ✖

galDETZEN hasita, estatuak diruz  
Lagunduta egingo diren herri-Lanek  
ba al dute hasiera datarik? Uztarria

## Koruko lagunak gogoan

Madalenak, Santiago Eguna... Agian, nahi  
baino azkarrago doakigu hilabetea. Gaienez ditu-  
gu, aurten ere, Saninaziyuek.

Jai egun horietan, beste hainbat festa ekitaldiren  
artean, Loiolako Santutegian eta herriko Parrokian  
ospatuko diren elizkizunak izango ditugu. Ospa-  
tuko diren meza edo Eukaristiak edo bezperan  
abestuko ditugun Salbe eta Konpletak horien arte-  
an.

Bizitzaren beste hainbat alorretan bezala, guzti  
horietan ere leku berezia du musikak, kantuak. Litur-  
giak beharrezko baitu, hitzarekin batera musika ere.  
Hala irakurtzen dugu, besteak beste, Batikano II.a  
Kontzilioaren dokumenturen batetan.

Garrantziko eginkizuna dute, beraz, musika doi-  
nuz otoitza osatzen eta giroten laguntzen duten or-  
ganu-jole eta abeslariak; gure artean, Parrokiako  
Koruko eta Julian Barrenetxea Abesbatzako lagu-  
nek. Beraien saiakera eta ahaleginari esker abesten



### Kepa Susperregi

dira orain arte, besteak beste, Julian Barrenetxea-  
ren Salbea; gure arteko Joxe Mari Altuna, Jose Luis  
Franzesena, eta beste egile batzuk konposatutako  
mezak... Hau da gureganaino iritsi den tradizioa.  
Azken urteetan onartu, eta gure indarren arabera,  
landu eta gaurkotu den ohitura.

Etorkizunari begira jartzen bagara, berriz, egoera  
berri baten atarian gaudela esango nuke. Ez dakit,  
orain arte bezala, ohitura horiei eusteko erronkari  
aurre egiteko gai izango garen.

Ardura hori bereganatu izan duen taldetxoak  
zailtasun nabarmenak bizi ditu eta gaur: jai egunak  
herriatik kanpora pasatzeko ohitura; familiako bizitza,  
lan ordutegiak eta koruarekiko lotura uztartu ezina;  
ondo-eza, gaisotasuna eta ezina. Eta, zer esanik,  
urteetan aurrera doan taldea dugu Parroki-  
ako Korua. Gure Parrokiako hainbat taldek, eta he-  
rriko hainbat elkartek bezala, kide berriak behar di-  
tuen. ✖



|||andoni salegi|||





## Mundua konpontzen

**A**zpeitiar peto-petoak afaltzera joan ginen soziedadera. Zortzi lagun. Ohiko bidea egin, etxepan txirrina jo eta barrura. Menua entsalada, atuna tomatearekin eta helatua. Edera guztia, zinez. Tomatea, apartekoa. Afal ondoren, kafeak, kopak eta puruak. Hitz jariora, gero eta animatuagoa, noski. Aipatze-koak ugari, beti bezala. Eta beti bezala, ekonomia, gizartea, eta mundua konpondu beharra.

–Hori ez dago ondo...

–Honakoa egin beharko litzateke...

Lagunetako batek apurtu zuen denon hitz jariora.

–Mundua berehala konponduko nuke nik. Horretarako bi erabaki besterik ez nituzke beharko.

Beste guztiok isilik geratu ginen, harrituta. “Urteak daramatzagu guztia konpondu nahian, ezin asmatuta, eta horrek bi erabaki ziztrinekin dena konponduko duelakoan; honek, izorratu bai, dena izorratuko du, kon-

pondu beharrean”, pentsatu genuen geure artean.

–Lehenengoa, bikotearekin konpromisoa urtero berritu beharra.

Ontzat eman genuen lehenengo erabakia, horrek gaur eguneko istilu asko konponduko lituzkeelakoan. Baina oraindik urruti gaude konponbide orokorrera iristeko. Zain baino gehiago bigarrenaren eske geratu ginen guztiok.

–Bigarrena, diruaren balioaren epea bi urtera mugatzea.

Ez zen berehalako erantzunik izan. Lehenago, noski, ulertu beharra zegoen esandakoa eta esandakoaren ondorioak. Gizarte hone-tako gaitz handienetakoa izango da asko duenak gehiago nahi duela, eta gehiago nahi izate horrek mugarik ez duela. Diruak, edo diru nahiak, izorratu ditu asko eta asko, lagunak, familiak eta abarrekoak. Lagunak ez zion diruari baliorik kendu, epea jarri baino. Eta horrek diruari baino diru pilatzeari kentzen



|||||||joxin iturriotz|||||

dio balioa. Utzi zentzugabe aberasteari, eta irabazi izan duzuna aprobetxatu bi urte baino lehenago egin nahiko zenukeena egiteko, bikotearekin eta seme-alabekin disfrutatzeko, amestu izan duzun bidaia hori egiteko, ingurukoei bizitza hobea eskaintzeko...

Bi erabaki simple, baina eraginkorrak litezkeenak, biak. Mundua benetan konponduta utziko luketenak, ia zalantzarik gabe. Ezinbestean, arrazoa emanez bukatu genuen gainontzekoak. Bestelako kontuez jarraitu genuen hizketan. Baina, oraingoan bai, benetan mundua konpondu genuelakoan atera ginen soziedadetik. Oporrak lasai har ditza-kegu, eta bueltan bidean jarriko dugu konponbidea. Baina hasteko hilean behin baino, afariak astean behin egin behar ditugula proposatuko dugu. Ziur denok baiezkua eman-go dugula.

Eta hurrengo proposamena laguna hau-teskundeetara aurkezteko eskatzea izango da. Mundua ez litzateke berdina izango.\*

# heldu uztarriaren amuari

**Uztarriako komunikazio proiektuko bazkide egin zaitezke, eta horrekin, gure proiektu hau zeure ere egin. Oso erraza da.**

izen-abizenak:  helbidea:

enha edo nan zenbakia:  telefonoa:

kontu korrontea:

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia  
e-posta: [uztarria@uztarria.com](mailto:uztarria@uztarria.com) • telefonoa: 943150358

**uztarria**  
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA





### ▼EGUN OSOKO FESTA.

Azpeitiko Gaztetxeak bost urte bete ditu eta, urtemuga ospatzeko egunbeteko festa egin zuten, uztailaren 17an. Goizeko hamaiketan elkartu eta hamaiketako egin zuten plazan. Ordurako, baltsa jaitsieran erabili beharreko tramankuluak ikusgai zeuden plazan. Argazkian, baltsa guztiak irteera puntuan.

# Jaitsiera umoretsua

Gaztetxearen bosgarren urtemugan hamasei koadrilek hartu zuten parte Urola ibaian egindako baltsa jaitsieran. 📌 Ainitze Agirrezabala 📷 Haritz Ibarzabal/Orkatz KE





### ▲ AUDIENTZIA NAZIONALAREN BAL TSA.

Ikusmin handia piztu zuen baltsa jaitsierak. Ehunka herritarrek hartu zuten tokia Urola ibaiaren ertzeetan eta ibilbideko zubietan. Iaz bezalaxe, hamasei koadrilak hartu zuten parte lehiaketan, Azoka Plazako zubian hasi eta Damaso Azkue auzoa pasata, Eskusta arterako ibilbidea eginez. Goiko irudian, Audientzia Nazionala irudikatzen duen baltsa.

### ► PIJOEN BAL TSA.

Ibaiak ur gutxi zerman eta lehorreko arraunlarien ahaleginek makina bat egoera eta pasadizo barregarri eragin zuten. Besteak beste, piratak, sukaldariak, goardia zibilak, arraunlariak, AHT eta *pjoak* aritu ziren nor baino nor baino nor. *Pjoen* baltsa, alboko argazkian.







### ▲ **UMOREA ETA FESTARAKO GOGOA.**

Era guztietako ontziak prestatu zituzten gazte koadrilek, eta eskifaiak mozorrotuta eta festarako gogo biziz eta umore handiz egin zuten Urola ibaian ibilbidea.

### ► **BALTSARIK ONENA, AHT.**

Helmugara iristen azkarrenak Xanjuandegi auzoko hiru taldeak –sukaldariak, piratak eta amona mantangorriak– izan baziren ere, aurtengoan saritua irudimen handieneko baltsa izan da: Abiadura Handiko Trena. Argazkian, AHTren gainean umeak jarrita jolasean.



### ▲ **ERREZILDARRAK ERE BAI.**

Azpeitiko gazteak ez ezik errezildar neskak ere animatu ziren baltsa jaitsieran parte hartzera, piraten ontzia irudikatuz.







### ▲ **XANJUANDEGIKOAK.**

Xanjuandegiko hiru taldeak  
—sukaldariak, piratak eta  
mantangorriak— plazan.



### ▲ **KAIKUAK TRAINERUKO ARRAUNLARIAK.**

Ziabogarik batere eman gabe lortu dute arraunlari hauek Urola ibaiko ikurrina. Nolanahi ere, ez dirudi estropada leher eginda bukatu dutenik; fresko xamar daude, ezpainetan irrifarrearekin. Bakarren bati honezkero proposamenen bat luzatuko zion Jose Luis Kortak.



### ▼ **GUZTIAK ELKARREKIN.**

Baltsa jaitsiera bukatuta parte hartzaile guztiek elkarrekin atera zuten argazkia. Baltsa jaitsiera eta gero, triki poteoa egin eta Gaztetxean bazkaldu zuten, 150 lagun inguruk. Bazkalondoren, ur jolasen txanda iritsi zen. Gaztetxetik abiatu eta alde zaharrean kalejira egin zuten. Gauean, Aldeixok eta Gomeru taldeen kontzertuekin bukatu zen Gaztetxearen urteurren festa.



# Saninazioak

## lehen eta orain

Garai bateko saninazioetako izarrak zezenketak eta prozesioa baziren ere, festak ulertzeko moduan parte-hartzaile bilakatzen ari da herria. 📎📞 Ainitze Agirrezabala

**Z**ezenketak, prozesioa eta ilunabarreko orkestra berbenekoak saninazioetan tradizio handiko hiru elementu badira ere, egungo saninazioak imajina ezinak izango lirakeke txosna gunerik eta festa egitarau herrikoi eta parte-hartzailerik gabe.

San Inazio jaiek denboraren joanean izan duten bilakaeraz hiru belaunalditako jendearekin hitz egin du Uztarririk.

### BAIGERA

||| **Elkarrizketatuak.** Arantxa Aizpuru eta Mariajesus Arregi. ||| **Adina.** 61 eta 65 urte.

“30eko herri bazkaria zabalagoa izatea nahiko genuke”

Erretiratu berriak dira Aizpuru eta Arregi. Duela 40 urte inguru, neska gazteak zireneko saninazioak nola gogoraraten dituzten kontatu dute. Kanpotarrak eta etorzen zirenez, “mutiletan egiteko aukera gehiago” izaten zela adierazi du Aizpuru. “Banda militarra ere etortzen zen, Burgostik. Ederki asko jozen zuten”. “Ni Pelotalekukoa naiz –dio Arre-



Mariajesus Arregi eta Arantxa Aizpuru.

gik—, eta gogoan dut gure karreran hiru bat zezen egoten zirela lotuta, zezen suelta izaten baitzen. Balkoitik begira, beldurrez egoten nintzen ateratzeko. Bai, Pelotalekuan kiosko bat jarri eta han ematen zuen kontzertua banda militarrek, Santio egunean”.

Saninaziotan indar handia betidanik zezenketek izan dutela diote. Aizpuren esanetan, “asko” joaten zen zezenketetara. “Gure aita oso toreroa zen, Etxaun txikia. Orain familia guztian gustatzen ez zaion bakarria neu. Aita sartu eta gu atarian geratzen ginen. Zezen batetik besterako tartean barrura sartzen gintuen”. Arregik adierazi duenez, bera ere “zezenzalea” zen: “Korridetara joaten ginen, baina gerora, animaliak sufritzen ikusteak egundoko pena ematen zidan. Hura zen lastima! Utzi egin nion joateari”.

Beraien gazte garaitik saninazioak asko aldatu direla diote. Arregiren esanetan, “orain parte-hartze handiagoa” dago. “Guk ere dugun edadearekin kantu poteoan eta bakailao txapelketan hartuko dugu parte. Lehen parte-hartzeko ekimenik ez zegoen. Udalak antolatzen zituen festak eta halaxe behar



zuela eta onartu egiten genuen. Herriak parte hartzea, egitaraua zabaltzea eta denak kontutan hartzea ongi iruditzen zait”. Alde horretatik “hobera egin” dela dio Aizpuruk. “Gazteak suspertuta daude. Gauza batzuk elkarrekin, heldu eta gazte, egiteko borondatea ikusi dugu. Niretzako hori oso polita da”.

Iazko kantu poteoa “oso ederra” izan zela dio Arregik: “Jende asko bildu ginen. Bukar, mokadutxo bat egitera gonbidatu gintuzten gaztetxeok. Afari hartako oroitza oso ona dut. Portatu ziren, hobeto ezin. Afalostean kantuan eta dantzari aritu ginen. Aurretik, ea Baigeran egiten dugun mokadutxo”.

Bakailao txapelketan ere aurten hirugarren aldiz parte hartuko dutela kontatu du Arregik: “Aizu, zergaitik ez ba? Aurten, gainera, emakumeen parte-hartzea bultzatu nahi da. Aizpururen esanetan, “sukaldean hainbeste lan egindako emakumei protagonismo pixkat eman nahi diegu”. Baigeratik emakumezkoen bi bikote animatu direla gaineratu du Arregik. “Erakundeetako ordezkariak egiten zaien harreko medio, iskanbila izan zen plazan eta ez genduko nahi aurten halakorik gertatzerik. Giro onean egitea nahiko genduko”.

## Egunik gustukoena, bezpera

Saninazioetan egunik gustukoena bezpera dute biek: “Goizeko ekitaldia, txupinazoarena, oso ederra izaten da. Guk poteoarekin egiten dugu bazkari jira”.

Saninazioei ekarpenen bat egitekotan, 30eko herri bazkaria “zabalagoa” izatea nahiko lukela adierazi du Aizpuruk. “Denak gazteak dira eta atzeratu egiten gara”, dio Arregik. “Guk behin planteatu genuen gazteei esatea, beraiek bazkari eder bat prestatu eta gazte eta heldu elkarrekin jango genduela”.

## IZARRAITZ TXOKO

||| **Elkarrizketatuak.** Iñaki Orbegozo ‘Arriya’ eta Meliton Santesteban. ||| **Adina.** 54 eta 53 urte.

“Aurten erreleboa beste bikote bati eman beharko diegu”

Orbegozo eta Santesteban gazteak zirela zain-zain egoten ziren San Inazio festak noiz helduko. “Bezpera izaten zen ederrena —dio Orbegozo—, 40 bat lagun elkartzen ginen eta Urrestillan Bizkerrean edo Errezilen Letean afaltzen genuen. Kotxean joaten ginen eta bete-bete eginda bueltatzen ginen. Orain bezperako afaria soziedadean egiten dugu andrekin eta”. 20 bat urte zituztela



Iñaki Orbegozo ‘Harriya’ eta Meliton Santesteban, Izarraitz-Txoko elkarteak.

pare bat txosna egoten zirela gogoratu du Santestebanek: “Artzubiaren zegoen garai bateko Pastorkua zaharra eta hura itxi zutenean han jarri zuen txosna Amnistiak”. Gaur egun gazteek antolatzen dituzten ekitaldiak orduan ez zela gaineratu du Orbegozo: “Udalak antolatzen zituen festak eta koadrila baikoitzak bere kontura jartzen zuen giroa. Kanpotik ere lagun mordoa etortzen zitzaizkigun eta taberna taberna ibiltzen ginen. Erdi disfrazatu egiten ginen eta zorakeria mordoa egin. Uralitazko tuboak hartu eta kalean behar prozesioa egindakoak gara”. Egan taldearekin plazan, berbenan, ‘agarrauan’ ibilitakoa dela adierazi du Melitonak.

Nolanahi ere, beraien gazte garaitik hona festa egiteko moduan gauzak ez direla asko aldatu esatean ados daude bi lagunak. “Herriko festa giroan sartzen diren gazteak ikusi eta neu horrela ibiltzen nintzela konturatzen naiz”, adierazi du Orbegozo. “Zezenketak, berriz, sekula ez zaizkit gustatu izan. Plazako talde berbeneko handi horiek kenduko nituzke eta talde ‘kañeroak’, Piperrak, La Polla... ekarri. Txosnetako giroa asko gustatzen zait, nahiago nuke beste 40 bat jarrito balituzte”.

Santestebanek esanetan, noiz edo noiz joan izan da zezenketetara, baina “geroz eta gutxiago. Oso luzea egiten zait eta nazkatu egiten naiz. Eskatzen hasita, txikiteoko ga-

raian kalean giroa alaitzeko hiru-lau bikoterik falta” somatzen du.

Bakailaoa pil-pilean egiten artistak dira, iaz txapeldunak izan ziren: “Munduko gauzarik errazena da bakailaoa prestatzea —dio Orbegozo—. Gertatzen dena da jendeak bekatu asko egiten duela. Pil-pila da bakailaoa, baratzuria, piper gorria eta olio”. “Bai, bai —gaineratu du Santestebanek—, jendeak osagai gehiegi bota eta horrekin lehiaketan puntuak galtzen dituzte. Iaz Ramon Elosegi sukaldari eta epaileak esan zidan sei bakarrik zeudela egoki ludituta eta gainontzeko 35ak ez zutela ezertarako balio”. Saritan egurrezko kutxara handi bat eman zieten eta Izarraitz Txokon daukate zintzilik. “Aurten ere ea txapeldunak garen”, esan dio Meliton Orbegozo. “Ez, aurten erreleboa beste bikote bati eman beharko diegu”, erantzun dio Santestebanek.

## FESTA HERRIKOIEI ALDEKO BATZORDEA

||| **Elkarrizketatuak.** Leire Goenaga eta Aitzol Iparragirre. ||| **Adina.** 26 eta 35 urte.

“Egun eza gutzen dugun txosna gurearen sorrera 1998an dago” Orain urte batzuk, pentsaezina zen Festa Herrikoien Aldeko Batzordearen egitaraua Udaren programa ofizialean sartzea. Aitzol Ipa▶

►ragirreraren esanetan, "jaien inguruan ikusle paperean aurkitzen ginen. Ez da soilik jarrera pasibo batera bultzatzen gintuztela, bazterkeria bat ere bazegoen festak aldatu nahi zizutenekiko. Abiapuntu bezala, gainera, ordura arte muntatzen ziren lokalak debekatze-  
ra joaten dira. 1993a izango zen".

Astotegian jarri zituzten aurrenekoz lau txosna. "Gaupasa egunean, goizeko seiretan, Udaleko langileak etorri eta kentzen hasi ziren. Lehen borroka hura izan zen". Gero, "Astotegitik bidali eta herriko obra guztiak pasatu" zituzten. "Onartzen hasi ziren txosnak jartzea, baina betiere bazterrean. Txosnak jartzearekin batera, festa eredu dinamika berri bat abiatzen da. Elementu klabeetako bat 30eko herri bazkaria izan zen, 1995ean".

Txosnak eta festa herrikoien artean "elkar-lan bat" ematen dela dio. "Jai herrikoiei begira egitaraua antolatzen hasi eta txosna gunea indartzeko borroka bat ematen da". 1997an, txosnak Paulo VI.ean jarri zirenean, "txosna gunek festa herrikoiei benetan zer ekarpen egitea zeukan erakutsi zen".

### Txosna gunea iraunkorra

Han ere obretan hasi zirenez, hurrengo urtean betiko borroka dute: "Txosnak non jarri? Herriko obraren batera bidaltzeko asmoa agertu zuen Udalak. Festa Batzordetik apustua egiten da: Udalak baimenik eman ez arren, txosnak Astotegian jartzea. Eguna iristean Udalak ertzainak bidali eta ez dute uzten jartzen. Ordura arte garatzen ari zen borroka indartu eta Udalar aparteko presioa sartzen zaio. Bost txosna jartzea lortzen da. Astotegia txosna gunea iraunkorra izatea adosten da. 1998an kokatzen da egun ezagutzen dugun txosna gunearen sorrera".

Egitarauaren inguruan ere "borrokak egon" dira. "Ordura arte, Udalak bermatzen ez zuena egi bihurtzen hastea zen apustua, festen aurrean jarrera parte-hartzailea bultzaz. Herri bazkariak kristoren arrakasta zuen hasieratik. Udalak festa batzordea kontutan hartzen ez bazuen ere, egiten ziren ekintzak bere lorpen bezala saldu nahi zituen".

Iparragirrek ez bezala, Leire Goenagak ez



Leire Goenaga eta Aitzol Iparragirre, Orkatz tabernan.

du txosnen inguruko borrokarik bizi izan. "17 urterekin sartu nintzenean, txosna gunea indartsua zegoen eta borroka beste ikuspegi batetik genuen: Udal gobernuarekin, EAJrekin. Nahiz eta Udalak bere programa egin, herrian oso barneratuta zegoen festa herrikoien egitarau bat bazegoen. Helburua egitaraua eta txosna gunea indartzea zen".

Festa Herrikoien Aldeko Batzordetik "herri osoarentzako eskaintza" egiten dela dio Goenagak. "EAJren jarrera beti da eskaintza berriak egiten ditugun heinean horiek oztopena. Bakailao txapelketarekin ere borroka berdina dago, txoznetan egitea nahi zuten".

### Egitarau bateratua

Udal Gobernuan ANV, EA eta Aralar zeudela beste aukera batzuk ikusi zituztela kontatu du Goenagak. "Bakoitza bere aldetik joan beharrean festa batzordearen mahai bat eskatu genuen, erabaki ahalmena eduki eta denok

batera egitarau bat ateratzeko. Aurten ere egon da mahai hori, baina EAJ gobernuan jartzean egin zuen lehen gauza mahai hori useltzen lagatzea izan da".

Iparragirreraren esanetan, "borroka eta planteamendu hori hasieratik egon da. Egitarau bat besteari kontrako borrokan, bata besteari gain hartzen. Festetan herritar guztiok dugu tokia, eta herritar guztiok tokia dugun momentutik berdinetik berdinerara eman beharreko historia da. Izan gaitezen gu protagonista. Ezin dira gauza batzuk bazterrerara bota, eredu zehatz bat planteatzeko. Udalak herritarren ordezkari izan beharko luke, ekimen desberdinak erraztu, eta inondik inora ez urteetan egin duena, oztopoak jarri".

Festa Batzordeak iazko berrikuntzak "mantentzeko eta indartzeko apustua" egin duela dio Goenagak: "Bakailao txapelketan azpiegiturak indartu ditugu". Aurtengoan, egitaraua "marea roxa batez irudikatu da".✱





**LUBA**  
aholkularitza  
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

# Modan euskaraz

‘Blai’ izeneko marka Euskal Herriko puntu desberdinetara zabaltzen joatea dute helburu Naiart serigrafia tailerrean. 📌📞 Xabier Otamendi

**N**aiart izeneko serigrafia tailerra daukate Alaitz Alberdik eta Mikel Alberdik. Enkarguzko lanak egitean datza gehienbat beraien lana, baina, ofiziotik afiziora salto egiten ere asmatu du bikoteak. *Blai* izeneko marka asmatu dute beraien denbora librean. Marka hori ez da beraien ogibidearen funtsa, gustoz egiten dutela esan liteke. “Serigrafia tailer bat dugunez, beti egin izan ditugu guretzako diseinuak. Horri loturiko ideia izan zen marka berri bat sortzea”.

Alaitz Arte Ederrak ikastetik dator, eta Mikelek, berriz, Diseinu Grafikoa ikasi zuen bere garaian. Bien ikasketen fruituak “uztartz-en” saiatzen dira. “Mikel ordenagailuarekin hobeto moldatzen da eta ni, berriz, eskuz”, dio Alaitzek. “Horregatik, bakoitza bere estiloan saiatzen gara eta biak uztartuz kamisetentzako diseinuak sortzen ditugu. Diseinu horiek *Blai* markan integratzen ditugu”. Bestalde, “kolore bereziekin lan egitea gustatzen” zaiela diote “ahalik eta kamiseta erakargarrienak egiteko”. Gustuko duten katalogo batetik aukeratzen dituzte kamisetak, eta kalitatezko arropa darabilte. “Ingalaterratik ekartzen digute arropa, ehun goxoak eta ebakidura ederrekoak”.

Hala ere, beraien lana horretan zentratzen ez denez, “presarik eta presiorik gabe” egiten dute, Mikelek dioenaren arabera. Dirua ateratzen dute bertatik, jakina, baina inondik ere ez dira lan horretatik bizi.



*Blai* markako hainbat diseinu.

Izena aukeratzeko garaian, “zerbait freskoa” izan behar zuela pentsatu zuten. “Euskaraz egin nahi genuen, eta belarrirako hitz goxo bat izatea ere erabakita geneukan. Beste alde batetik, atzerriko hizkuntzetan ere erraz ahoskatzeko moduko hitza aukeratu nahi genuen”. Ongi pentsatu eta gero, *Blai* izena jartzea erabaki zuten. Mikelen esane-

tan, “euskarazko hitza dugu, baina ingeles batek erraz ahoskatuko luke aldi berean. *Aizkorri*, adibidez, hitz oso zaila da kanpokoek ahoskatzeko, baina *Blai* euskaraz ez dakiteneke ere erraz erabil dezakete”.

Markaren izen osoa, ‘*Blai*’, diseinu eta estanzazio librea da, ordea. “Lana oso libre egiten dugula adierazi nahi dugu, ez gaudela estilo konkretu batera lotuta edo mugatuta. Esaldiak dioen bezala irekita gaudela, hori bai, baina beti ere, bion artean estiloa uztartzen saiatzen garela ere azaldu nahi dugu”. Koherentzia maila bat mantenduz, baina askatasun hori erakutsi nahi dute biek.

## Euskara eta ingelesa

Moda munduan euskararen erabilpenaren inguruan ere, hausnarketa egina dauka bikoteak. *Blai* euskara salbatzeko egin ez duten arren, “euskara modara ekartzea” nahi izan dutela diote. Alaitzek adierazi duenez, “orokorrean, euskarazko kamisetak arlo erreibindikatibo eta kulturaletara mugatu izan dira. Moda munduan ere euskararen presentzia aldarrikatu nahi izan dugu”. Jendeak ingelesez idatzitako edozer gauza jantzen du, bere kamisetak zer dioen jakin ere egin gabe, baina euskaraz idatzitako zerbait ikustean, “kutre” bezala definitu ohi dute askok. Hori ohiturarik ez dagoelako da, eta jendea ohitzen joateko aurrerapauso ederra da *Blai* marka sortu izana.





Alaitz Alberdi eta Mikel Alberdi, *Blai* markaren sortzaileak, Naiart serigrafia tailerrean.

Mundu globalizatu batean bizi gara, eta bikoitea horrekin konturatuta, ingelesa ere erabiltzea erabaki zuten marka sortzerako garaian. Horregatik, bi hizkuntzak erabiltzen dituzte *Blai* markako diseinuak egiterakoan. Mikel Alberdiren esanetan, “gero eta mundu globalizatuago batean bizi garenez, ingelesa ere hor dago. Euskara gure hizkuntza dugu, eta ingelesa, berriz, mundu mailako hizkuntza”. Etiketak beraiek egiten dituzte, eta euskara eta ingelesa erabiltzen dituzte azalpenak emateko.

### Mutilen arropak arrakasta gehien

Salmentengatik hitz egiterakoan, “gustura” daudela diote biek. Ez dute bertatik jaten, “hobby edo zaletasun” bat bezala definitzen dute lan hori. “Baina, Azpeitian hasi ginenean nahikoa ongi saldu zen, eta ondoren, Azkoitira, Zumaira... zabaltzen hasi ginen. Horrek ere emaitza onak eman zizkigun”. Gehienbat mutilen arropa saltzen dela dio Alaitzek: “Izan ere, nesken arropetan hainbeste aukera dagoenez, eta gainera merkea denez, zailagoa da *Blai* saltzea. Hori ikusita, horregatik egiten ditugu gutxiago nesken

## Xedea, zabaltzea

||| Mikelen esanetan, *Blai*-ren helburua ez da estilo berri bat sortzea. “Helburua kamiseta erakargarriak egitea da, jendeari gustatuko zaizkionak, modan edo linean joatea...”.

Azpeitian ez ezik beste hainbat herritarare ere zabaldu dituzte kamisetak. “Pixkanaka, eta presiorik gabe Euskal Herriko puntu ezberdinetara zabaltzen joatea nahi dugu”. Azpeitian Kalani dendan daude salgai, Azkoitia eta Zumaia Uffifers-en, Zarautzen Essus-en, Hernanin Maukan eta Lekeition Dzanguan. “Herri gehiagotara iristea dugu helburu datorren denboraldian. Neguko arropa gehiago atera eta Euskal Herriko puntu ezberdinetara zabalduko ditugu”. Jertseak atera zituzten iaz, baina aurtien gehiago aterako dituzte, baita manga luzeko kamisetak ere.

Dendarientzat errazagoa izan dadin, kamiseta kopuru bat uzten diete, eta saltzen duten kamiseten arabera kobratu. “Gisa horretan errazagoa da dendarientzat. Saltzen dituzten kamiseten arabera ordaintzen digute”.

arropak. Mutilen kamisetak piloa saltzen dira”.

Pare bat urte dira markaren ideiarekin hasi zirela, eta ondoren, erregistratu zutela. “Hilabete mordo behar izan genituen erregistro guztia burutzeko. Madrilgo enpresa bati markaren izena eta logotipoa pasatakoan, bost edo sei hilabetez aztertu ondoren, balio zuela erabaki eta ordaindu beharrekoa ordaindu ondoren, erregistratuta geratu zen estatu mailan”.

*Goenkale* ere agertu izan dira bikote honek sortutako kamisetak. “Telesaileko aktoreak makilatzeaz arduratzen den lagun baten bitartez, arropen arduradunarekin harremanetan jarri, eta beraien zenbait kamiseta bertako pertsonaiek janztea lortu genuen”. Ezin ukatu presentzia ona ematen dionik horrek markari.

Beraz, norbaitek modarekin bat joatea nahi baldin badu eta, gainera, euskara jantzi ta ibili nahi baldin badu, orain badaki marka bat gehiago dagoela horretarako. Azpeitia hain herri euskalduna izanda, gainera, bada garaia euskarazko arropa ibiltzen hastekoa. Ez al zaizue iruditzen?\*





jaione unanue



leire goenaga

# Eskerrik asko

**L**eire Goenaga. Hi, Uztarratik deitu zidaten, biharko idatzi behar dinagula esanaz.

**Jaione Unanue.** Beste behin ere presa-ka eta bezperan idatzi beharko. Ez diten meritu makala gurekin!

**Leire.** Azkena idaztera iritsi gaitun, baina gu betiko mailan.

**Jaione.** Eta zertaz idatziko dinagu?

**Leire.** Hori dun gure hileroko galdera.

**Jaione.** Azkena denez, agurtzea izango dun onena.

**Leire.** Izan dinagu aukera zer idatzi eta kontatua, eskerrak Uztarrria Kultur Elkarteari. Segi dezatela lanean!

**Jaione.** Eta irakurri gaituztenei...

**Leire.** Gogoratzen al haiz lehenengo elkarrizketa idatzi genuenean?

## Hartu olatua

**Leire.** 14 aletan atera ditinagu gure jardunak. Apostasiarekin hasi gintunan, errenta aitorpeneko 'X'-aren bueltan.

**Jaione.** Gazumeko haize errotak ere aipatu genizkinan, ez omen ditizten ipini behar. Haizea aldatuko hunan!

**Leire.** Udaletxeko balkoian bandera espainola ipini geninan...

**Jaione.** Krisia, langabezia... ezer gutxi aldatu dun herritar eta langileentzat.

**Leire.** Munillaren etorrera zela eta egin genionan geure ongi etorria.

**Jaione.** Puf, ezidan gogorazi. Gure aitari makina batek berotu zionan belarria, idatzi genuenaz haserre.

**Leire.** Euskal Herriko salbuespen egoera ere izan dinagu gure kezka, errepresioa, elkartasuna, debekuak...

**LEIRE.** “Herrian bazagon gogoa eta ilusioa jai herrikoietarako”

**JAIONE.** “Espetxean eta erbestean dauden lagunei besarkada bat. Aupa zuek!”

**Jaione.** Bai, eta aprobetxatuz, Miren Odriozolari eta Udalbiltzako beste auzipetuei besarkada handi bat.

**Leire.** Bestetik, uda aldera herriko festak izan ditinagu mintzagai, bazagon gogoa eta ilusioa jai herrikoietarako.

**Jaione.** Marea arroxak gero eta gertuago dinagu! Hasi dadila herria prestatzen olatua hartzeko!

**Leire.** Gu ere hor joango gaitun!

**Jaione.** Gainean ahal bada!

**Leire.** Azpian harrapatu ditzala batzuk.

**Jaione.** Bukatzeko, ez dinat joan nahi herritik hurrun espetxean eta erbestean dauden herritarrei eta lagunei besarkada bat bidali gabe. Aupa zuek!✱



# Erdi Arora jauzia

Postuez gain, Bertan Merkatarik Elkartek Stock azoka ere egingo du eta 25 dendari inguruk hartuko dute parte. Gainera, Arte eta Diseinu Ikastegiak Marrazki Lehiaketa egingo du.  Ainitze Agirrezabala

**H**amargarren urtez egingo da herrian Erdi Aroko azoka. Irailko azken asteburuan izango da, larunbatean eta igandean. Horrekin batera, Bertan Azpeitiko Merkatarik Elkartekoek Stock azoka antolatu dute, azoka plazan. Hala, herriaren alde zaharrean merkataritza eta festa giroa uztartuko dira.

Erdi Aroko Azokako postuak, aurreko urteetan bezalaxe, Done Jakue kalean edota Pilotalekuan, Albergan eta herriko plaza eta Olazko Amaren plaza bitartean jarriko dituzte. 40 postutik gora izango dira: bitxiak, otarrak, arropak, jolasak, jakiak...

Erdi Aroko Azokako postuez gain, Bertan Merkatarik Elkarteko 25 dendari inguruk atzera gelditutako arropa eta produktuak saltzeko stocka egingo dute.

## DATUAK

- Zer.** Erdi Aroko Azoka.
- Eguna.** Irailak 25 eta 26 (larunbata eta igandea).
- Ordua.** egun osoa
- Tokia.** Herriko plaza eta Alde Zaharra.
- Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

igandean, azoka plazan jarriko duten stock azokan. Ohikoa den bezala, stock azokan denetarik egingo da: haurrentzako eta helduentzako arropak, eskulanak, opariak eta bestelakoak.

Azken bi urteetan bezalaxe, aurten ere, Erdi Aroko azokaren baitan haurrentzako Marrazki Lehiaketa antolatu du Arte eta Diseinu Ikastegiak, 6 urtetik 13 urtera bitarteko haurrentzat.

## POSTU UGARI

# 40

**postutik gora.** Done Jakue kalean edota Pilotalekuan, Albergan eta plaza eta Olazko Amaren plaza bitartean jarriko dituzte.

# 25

**dendari inguru.** Bertan Merkatarik Elkartekoek atzera gelditutako arropa eta produktuak saltzeko stocka egingo dute.\*



Erdi Aroko Azokan etxekotutako ehiza hegaztiak ikusteko aukera ere izango da.  Nerea Uranga

## BESTERIK

### 1 Ipuin kontalariak

Bost urtetik aurrerako umeei zuzendutako ipuin kontaketa saioak izango dira iraileko azken bi astelehenetan. Gisa horretan, udako oporren bueltan txikienek zer gozatua izango dute.

**Eguna.** Irailak 20 eta 27 (astelehena). **Ordua.** 18:00

**Tokia.** Udal liburutegia.

**Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

### 2 Argazki erakusketa

'Munduan zehar hainbat ibilbide' izenburupean argazki erakusketa ikusteko parada izango da irailean.

**Eguna.** Irailak 24tik 30era.

**Ordua.** Irailak 24ean, 27an, 28an, 29an eta 30ean

18:00etatik 20:00etara. Irailak

25ean eta 26an 12:00etatik

14:00etara. **Tokia.** Betharram

aretoa. **Antolatzailea.**

Azpeitiko Udala.

### 3 Eizmendi auzoko jaiak

Sanmielak ospatuko dituzte irailean Eizmendi auzoan.

Eguerdiko 12:00etan Meza Nagusia izango da bertako baselizan eta, gero, bazkaria. Erromeria eta bertsolarien jarduna ere ez dira faltako.

**Eguna.** Irailak 29

(asteazkena). **Ordua.** Egun

osoko festa. **Tokia.** Eizmendi

auzoa. **Antolatzailea.**

Azpeitiko Udala.\*

 Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



uztarria.**iragarkilaburrak**.com

saltzeko  
erosteko  
eskaintzeko  
eskatzeko  
aurkitzeko

...



www.iragarkilaburrak.com  
txintzarri.iragarkilaburrak.com  
otamotz.iragarkilaburrak.com  
soraluze.iragarkilaburrak.com  
elgoibarren.iragarkilaburrak.com  
bidasoamedia.iragarkilaburrak.com  
ukberri.iragarkilaburrak.com  
oarsoaldeko hitza.iragarkilaburrak.com  
tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

busturialdeko hitza.iragarkilaburrak.com  
urola-kostako hitza.iragarkilaburrak.com  
irutxuloko hitza.iragarkilaburrak.com  
goierriko hitza.iragarkilaburrak.com  
Iibarri.iragarkilaburrak.com  
baleike.iragarkilaburrak.com  
geugasteiz.iragarkilaburrak.com  
etakitto.iragarkilaburrak.com

*milaka bisita egunero*

## zure-azoka

**Erregistratu zaitez**  
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

**norbanakoak**  
*doan*

**enpresak**  
*leku eskusiboa*

*jarri zure  
iragarkia!*

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa  
**100.000**aleko zabalkundearekin.

HITZ GEZIDUNAK



|                     |                      |                          |                     |                  |                       |                   |              |                  |            |
|---------------------|----------------------|--------------------------|---------------------|------------------|-----------------------|-------------------|--------------|------------------|------------|
|                     | Baleukate            |                          | Alderantziz arabako |                  | ... egin, goi-tik ari |                   | Zuhaitz mota |                  | Mozkortuta |
|                     | Nafarroako herria    |                          | Tarte               |                  | Anai-arrebak          |                   | Behatu       |                  |            |
|                     |                      |                          |                     |                  |                       |                   |              |                  |            |
|                     | (fam.) emakume izena |                          |                     |                  |                       | Ingelesez, ohe    |              |                  |            |
|                     | *                    |                          |                     |                  |                       | Bokala            |              |                  |            |
| Begi bistan         |                      | Eriari hiltzen laguntzea |                     |                  |                       |                   |              |                  |            |
| Agintzen duena      |                      | (Infin.) Inguratu        |                     |                  |                       |                   |              |                  |            |
|                     |                      |                          |                     |                  |                       | Bokala            |              | Nitrogenoa       |            |
|                     |                      |                          |                     |                  |                       | (zah.) Zakur      |              | Bizkaieraz, omen |            |
| Inperioko agintaria |                      |                          |                     |                  |                       |                   |              |                  |            |
| Nafarroako ibaia    |                      |                          |                     |                  |                       |                   |              |                  |            |
|                     |                      |                          | Kontsonantea        |                  | Ugaztun karraskari    |                   |              |                  | Putre      |
|                     |                      |                          | Rutenioaren hasiera |                  | Errepikatuz jo        |                   |              |                  |            |
| Bizkaiko herria     |                      |                          |                     |                  |                       | Bokala            |              | Sufrea           |            |
| Ale, bihi           |                      |                          |                     |                  |                       | Lehena eta azkena |              | H2O              |            |
|                     |                      |                          |                     | Eraila, akabatua |                       |                   |              |                  |            |
|                     |                      |                          |                     | Bokala           |                       |                   |              |                  |            |
| Bretainiako hiria   |                      |                          |                     |                  |                       | Kolore mota       |              |                  |            |

Egilea: Luma

\* Azpeitiko jauregia

HITZ GURUTZATUAK

**EZKER ESKUBI:** 1. Trebetasun, abilezia. 2. Praseodimioaren ikur kimikoa. Izadia. 3. Zestoako auzoa. Euskal fone-ma. 4. Neurri txikiko gorputza du. Suari dariona. 5. Sarrera nahiz irteera. Mailu handi. 6. Sugetzarra. Arraunen euskarri. 7. Bizkaieraz, bike. Aipatu, esan. 8. Karrantzako auzoa. Bizkaiko herria. 9. Ezkorrak.

**GOITIK BEHERA:** 1. Zeanuriko auzoa. 2. Ugaztun karraskari nazkagarriak. 3. Iodoaren ikur kimikoa. Azalera unitatea. Sodioaren ikur kimikoa. 4. ... etorri, oneratu. Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko erakundea. 5. Nizkaierz, puska handi. Jaurtiketa. 6. Ate, hitz elkartzeetan. Sendo, irmo. 7. Gar. Arrantza gunea. Kontsonantea. 8. Urte beteko epea. 9. Lasaituak, baretuak.

|   | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 2 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 3 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 4 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 5 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 6 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 7 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 8 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 9 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |



## SOLUZIOAK

## HITZ GEZIDUNAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | R | U | Z | • | S | E | T | N | A | N | • |
| A | U | T | A | K | A | • | U | A | R | A | G |
| S | • | A | • | A | T | E | R | R | U | I | • |
| • | I | B | R | E | • | T | • | A | G | R | A |
| A | E | O | R | A | D | R | A | P | E | N | • |
| N | • | E | • | I | R | A | T | N | I | G | A |
| A | I | S | A | N | A | T | U | E | • | A | • |
| D | E | B | • | E | B | L | I | • |   |   |   |
| E | Z | O | K | S | A | B | A | N |   |   |   |
| • | I | • | O | • | R | • | B | • |   |   |   |

## HITZ GURUTZATUAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | A | R | R | O | K | A | K | U |
| A | E | • | O | R | E | N | A | R |
| U | T | A | T | A | I | • | U | I |
| T | E | • | O | L | E | • | O | B |
| I | B | A | G | • | A | E | A | T |
| A | E | K | • | O | R | A | R | N |
| S | T | • | A | E | T | A | R | I |
| A | R | A | U | T | A | N | • | P |
| N | U | S | A | T | O | I | A | I |

## ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Irailak 20 (astelehena) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZER DAGO SOBERAN/////ZER DAGO FALTAN.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

## UZTARRIAREN UZTAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

## ZEIN DA?



## IÑAKI REGIL 'MATXOTE'



## IRABAZLEA



Patxi Galarraga Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 119. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Patxi Galarraga, saria eskuetan duela.

ETXEZ ETXEKO  
ARDO BANAKETA

943 76 98 51 Larchago



Larchago kriantza 2006  
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO  
ARDO KARTAN

Kriantza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

## Bisigu errea

**B**isigua txikia denean, pantxoa deitzen zaio. Gorputz obala, kolore gorri iluna, sabel zurixka eta bi begi handi ditu. Gutxitan heltzen da 50 zentimetro luzean izatera edo kilo eta erdiko pisua bizirik izatera.

Neguan arrain urdina da, %5 baino koipe gehiago duelako; udan, berriz, zuria da, ia koipe hori dena galdu eta %2raino jaitsiz. Noiz da, beraz, hobe edo gustagarriagoa? Zalantzarik gabe neguan; nahiz eta ohituz udan jatera bultzatu. Sendagile baten ikuspuntutik liserigarriagoa da parrilan erreta jatea. Olio frijitua eransten diogunean liseritzeko arazoak sortuz.

Aberatsa da sodioz, eta tentsio altua dutenek ez diote gatzik bota behar. Magnesioari dagokionez naturistek gehiegikeriak esan dituzte eragin onuragarri buruz. Arrain guztiek magnesio maila berdintsua dute, baita haragiak eta barazkiek ere.

100 gramok 110 kaloria ditu, baserriko oilasko baten 100 gramok bezala. Azukrerik ez du eta pisuaren %18 proteina da. Bitaminaz ez da batera aberatsa eta azido urikoari dagokionez, erdi mailako balorea du. Koipedun janari gehienek bezala, honen koipea asegabea da. Arrain garestia, baina gustagarria da bisigua.\*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

## ANDRES ARANGUREN lan bertikalak egiten ditu



### 1. Zer da zuen egitekoa?

Fatxada pikatu, zarpiatu, balkoiak lixatu, pintatu...

### 2. Lanerako garai bat?

Uda, krema pixkat emanda.

### 7. Egin duzuen lan bat?

Azkoitin Jausoroko dorreak.

### 3. Afizioa ofizio bilakatu al duzue?

Eskaladan ibiliak dira beste bi lankideak, baina ni ez.

### 4. Soka eteteko arriskurik bai?

Zaila. Ezustekoak norbere akatsengatik gertatzen dira.

### 8. Ondo irabazten da?

Aberastu ez gara egingo, baina gustura gabilta.

### 5. Sustorik bai?

Azulejuaren kontra soka eten eta babeserako sokak heldu ninduen, Zarautzen.

### 6. Ondo portatzen al dira bizilagunak?

Azkoitiarrak maitagarriak dira, kafea ematen digute.\*

📌 Ainitze Agirrezabala

**ORKATZ KULTUR ELKARTEA**  
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

**ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK  
Jose de Arretxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA  
Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**Ekain**  
ALBATARI KLINIKA  
Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
Larrialdiak:  
943-15 16 40

**domusa**

**AIZPURU AUTOAK**  
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA  
aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"  
**URBISTONDO MARGOAK**  
Salbe Auzunea, 35 behea  
20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

*lora-etxea...*  
**Kimu bat**  
ASTE BUKAERAN IREKIA  
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



# Uztarriaren X. Pourra

Aurtengo jokoak 120 parte hartzaile izan ditu. Sari banaketa Saninazio bezperan, uztailaren 30ean, izango da Uztarriak Erdi kalean duen tonbolan, 20:00etan hasita. 📌 Ainitze Agirrezabala



**U**ztailaren 3an hasi zen Frantziako Tourra eta Uztarria Kultur Koordinakundeak hargarrenez antolatu du Pourra. Aurtengo jokoak 120 parte-hartzaile izan ditu. Santio Egunean bukatu zen Tourra, eta orduan amaitu zen Pourra ere.

Ohitura den bezala, sari banaketa Saninazio bezperan izango da, uztailaren 30ean. Uztarriak Erdi kalen jarriko duen tonbolan

## ||| INKESTA |||

**Macacoren kontzertura joango zara?**

**Bai.** %10,68.

**Ez.** %75,73.

**Agian.** %13,59.

**||| Oraingo galdera.**

Uztarriaren tonbolan jokatu al duzu?

egingo da, 20:00etan hasita. 2010eko Pourraren irabazleak 720 euro eramango ditu, bigarrenak 480 euro eta hirugarrenak 240.

Aurtengoan ere, lehen hiru sailkatuz gain, 4, 6, 12, 18, 24, 36, 48, 69, 87, 109 eta 120. postuetan bukatzen dutenek saria izango dute. Saritu guztiek Uztarriaren tonbolara azaldu beharko dute saria jasotzera. ✖

## ||| EFEMERIDEAK |||

# 1745

**Bidea egitea onartu.** Azkoitiko lurraldearen mugatik Loiolara bitarteko bidea egitea erabaki zuen herriak, Inazio Ibero maisuak zuzenduta.

# 1682

**Erreketa.** Sute baten ondorioz, San Martin ospitalaren zati bat erre zen gauean, abuztuaren 1ean.

# 1841

**Joxe Buenabentura Laka hil zen.** Banderillak jartzen ari zela Erlete baserriko zezenak zaurituta. Hurrengo egunean hil zen. Joxe Ituarte Zapaterito toreatzailearen taldeko laguntzailea zen Buenabentura.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. *Herria historian* zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. ✖

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak ||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita



# Andereño beti

Urrestillan ikastola itxi zela urte batzuk joan dira, baina haren arrastoa gogoan du Karmen Arozenak. Irailean, haurreskola berria irekiko dute. 📧 Mailo Oiarzabal

**Z**erotik abiatu behar zen ikastola batean hasi eta berrogei urte pasa egin ditu irakaskuntzaren munduan Karmen Arozenak (Urrestilla, 1949). Aurrejubilazioa hartuta, orain ikasturtean zehar ordu batzuk besterik ez ditu egiten lanean. Baina, Urrestillan, beti izango da *andereño* Karmen, bera izan zelako Urrestillako Ikastolaren sorrerako andereñoa. Hemeretzi urte jarraian egin zuen han lan, parrokiak utzitako eskola zaharraren lokalean aurrena, eta Urrestillako eskoletako eraikinetan ondoren. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraira joan zen gero eta han ari da bere irakasle ibilbidearen azken urratsak betetzen; baina Azpeititik Urrestillara itzuli ere egin zen, atzera eta behin betiko Azpeitira bueltatu aurretik.

Biak probatuta, eskola txikia herri txiki baten ingurunean eta ikastetxe handiagoa herri handiagoan, “niri txikikoa”, erantzuten du Arozenak, gustukoagoa zein duen galdetuta. “Iruditzen zait daukazun bizipenak, daukazun inguruak eta daukazun lasaitasuna... beste gauza bat dela. Eta umeentzat ere hobe iruditzen zait. Eskola handiagoetako zalaparta horretan mugitzen ere ikasi beharrekoa da, baina txikia zarela ez daukazu horren beharrik, batere; izango dute denbora horretarako. Txikitan beste harreman batzuk, beste gauza batzuk behar dituzu, eta eskola eta talde txikiak beti lagunduko dizu gehiago, pila handi batek baino”, azaltzen du.



Karmen Arozena Urbistondo.

“Ingurua” hitza behin eta berriz aipatzen du, Urrestillako ikastola izan zenaz eta urte haietako oroitzapenetaz ari dela. Umeek naturarekin bertatik bertara harremana izatearen aukera asko baloratzen du, eta asko baloratzen zuten, berak zein ikasleek, Urrestillan zebiltzanean. “Guk animaliak gelan edukitzen genituen. Eta orain atarian dauden arbolak, geuk umeekin landatutakoak dira, hor dauden haritz eta lizar denak umeekin landatutakoak dira. Zenbat aldiz ateratzen ginen

atarira marrazkiak egitera, edota matematikak lantzea”, gogoratzen du. Gaur egun kontuak aldatu egin dira, eta Karmen Arozenari ez zaio hainbeste gustatzen gauza batzuetan irakaskuntzaren munduak hartu duen norabidea. “Gaur egun, zoritxarrez, ikastetxeek zementua besterik ez dute inguruan. Arriskuak eta garbitasun ezak-eta izango dira, agian, baina belarra, eta lurra... Akabatutako txori bat aurkitu eta hura lurperatzea, loreak landatzea... Horiek, beste bizipen batzuk dira. Azpeitian ere beti esan izan didate, oso ‘kallejera’ naizela. ‘Merienda hartu eta buelta bat ematera joango al gara?’. Eta Ingurugiro Etxera, edo Barrenetxe aldera... Eta gauza pila bat ikusten dituzu. Ume batzuk tomateak ez dute behin ere baratzean ikusi! Eta baratzeak hor baldin badauzkagu, zergatik ez?”, galdetzen du.

Jabetzen da gauzak aldatu egin direla, irakasle-ikasle-guraso hirukoaren harreman eta indar-neurketa aldatzen joan den heinean. Aldaketa horren oinarrian irakasleen erosotasunak ala gurasoen presioak, pisu gehiago zerk duen galdetuta, “biak lotuta” daudela irizten dio. “Beste puntara joan gara. Ume batek min hartzen badu, zuk ezin duzu kotxean eraman anbulatoriora. Hemen, Urrestillan, ume pila bat dago Olanbasora inoiz joan ez dena! Umeak hobeto daude hemen [etxean duen jolas-parkeaz ari da], Olanbasoan baino? Edo gurasoak daude hobeto? Zei-





nentzako da egokia? Zer da, umeentzat arriskua dagoelako, edo gurasook eroso egon nahi dugulako? Gauza askotan aurrera egingo genuen, baina... Natura, hementxe daukagunean, eskura...".

### Bailarako lehen Olentzeroa

1960ko hamarkada erditik hasi eta 1970ekoan zehar "Euskal Herria irakiten" zegoela gogoan du Karmen Arozenak, eta Urrestillan ere somatzen zen "mugimendu indartsu" bat. Irakinaldi haren emaitza aipagarrienetako bat izan ziren ikastolak. Urrestillan 1970-1971 ikasturtean jarri zuten martxan

**1.** 1970-1971 ikasturteko taldearekin, aurrenekoak. Urrestillako ikastola ikasturte horretan jarri zuten martxan. Hamabi ikasleekin hasi ziren, baina berehalaxe gehitu zitzaizkien beste bi. **2.** Irteerak, txangoak... Eskoletako ataritik hasi eta Urrestilla inguruko txoko eta bazter guztietara iristen zen Karmen Arozena ikasleekin. Natura eskura izanda, ez zuten aukera alferrik galtzen. Argazkia 1980ko hamarkada hasierakoa da eta Arozena eta bere orduko ikasleak Urrestillako Olanbaso gaineko zelaian daude. **3.** Belaunaldi bat baino gehiago igaro ziren Urrestillako ikastolatik. Argazkikoak moztorro festa ospatzen ageri dira, ikastolaren atzekaldean, eskoletako jolas-parke edo 'portxe' kutunetik gertu.

ikastola, herriko gazteen eta guraso talde baten elkarlanaren ondoren. "Hamabi haurrekin hasi ginen, eta abendurako ja bi gehiago genituen. 3 eta 5 urte artekoak ziren guztiak. Bi ikasle erdaldunak ziren, eta familiek euskara ikas zezaten ekarri zituzten ikastolara", gogoratzen du Arozenak. Lehendik eskola nazionalak bazeuden eta apustu garrantzitsua zen, noski, halako proiektu bati heletzea; baina aurrera egin zuten. "Eta hasierako andereñook beti esaten duguna –dio Arozenak–, guraso haiek, bazutela meritoa, proiektu berri batean eta guztiz legez kanpo zegoen batean, benetan eta ilusioarekin sartze-

## 'Ilobak' Minian

Ikastolaren hasierako urteetan denetarik eta askotarikoak egitea tokatu zitzaion Karmen Arozenari. Urrestillakoak ez ezik, Nuarbeko ikasleak ere bazituen eta, berak esaten duen moduan, "eskola garraioa" egitea ere egokitu zitzaion. Edozer, ikasleei eta haien gurasoei erraztasunak emateko. "Nuarbetik ikastolara etorri nahi, baina autobusik ez. Mankomunitateak antolatzen zuena bazegoen, baina goizegi. Nik 1975ean ja Minia baneukan, eta konpromisoa hartu nuen, neu joango nintzela bila. Gaztetasuna, zer den...". Gaur egun kotxeetan legez bete beharrekoak diren segurtasun neurriak kontuan hartu beharrik ez eta, urte haietan ohikoa zen bezala, autoa txikitxo izan arren ume mordoska kabitzeko arazorik ez. Hala ere, bidean tarteka ez zen trabarik falta izaten. Ezta trabak gainditzeko aitzakiarik ere. "Mini Morrisean, sei lagun. Guardia Zibilak gelditu kontrolean eta, beti, beti umeak medikuarengana eramatera... Errekalde aldean gelditu, Nuarbetik goitik behera eta, '¿son sus hijos?'; eta 'no, son mis sobrinos'. Eta beti medikuarengana... Historiaurreko kontuak dirudite, orain esanda, baina herenegun ziren".

an". Ikastolak dirua behar zuen, eta hura finantzatzeko hainbat ekimen sortu ziren: herrian bazkietza kanpaina arrakastatsua egin zuten eta, besteak beste, Gabon eskea antolatu eta ateratzen zen dirua ikastolara bideratzen hasi ziren. Hain zuzen ere, gure bailaran kalera atera zen lehen Olentzeroa, Urrestillako Gabon eskean atera zuten, pertsonaiaren berri Durangoko Azokan izanda.

Umeen gutxitzeak ekarri zuen, nagusiki, joan den hamarkadan Urrestillako ikastolak atek itxi behar izana. Nork esan, 1973-1974 ikasturtean Karmen Arozenak gela bakarrean 3 eta 5 urte arteko 32 ikasle izan zituenean. *Baby-boom*-aren garaiko kontuetara iritsi gabe bada ere, hazten ari da Urrestilla, umeak ugaltzen hasi dira berriro, eta datorren irailean Zurrumbilo haurreskola berriak atek irekiko ditu lehengo eskoletan; aurreko ikastolak ezagutu zuen azken egoitzan, hain zuzen. Albistea ezagutzeak "kristoren poza" eragin zion Karmen Arozenari. Orain, jendea horrelako zerbitzu bat eskura izatearen garrantziaz "kontzientze" izatea espero du, eskolak herri txiki bati "kristoren bizitza" ematen diolako.✕

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Udaletxea            | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa         | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak        | 112      |
| Azpeitia Lantzen     | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen      | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa      | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB     | 15 71 61 |
| INEM                 | 15 04 02 |
| Kiroldegia           | 81 30 69 |
| Igerilekua           | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia  | 0837 80  |
| Aitonena I           | 81 51 71 |
| Aitonena II          | 81 23 89 |
| Epaitegia            | 02 51 91 |
| Ingurumen Etxea      | 81 24 48 |

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abuztuaren 25ean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

|                           |          |
|---------------------------|----------|
| Hautetsi Independentistak | 15 72 00 |
| EA                        | 81 00 11 |
| EB-Aralar                 | 15 72 00 |

SINDIKATUAK

|      |          |
|------|----------|
| ELA  | 81 34 46 |
| LAB  | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

KULTURA-EUSKARA

|                      |              |
|----------------------|--------------|
| Euskara Patronatoa   | 81 45 18     |
| Udal Euskaltegia     | 81 19 47     |
| AEK                  | 15 10 89     |
| EHE                  | 15 10 89     |
| Udal Liburutegia     | 15 71 95     |
| Loiolako Liburutegia | 8165 08      |
| Kontseilua           | 943 59 12 00 |
| Bai Euskarari        | 902 43 00 26 |

IKASTETXEA

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Iraurgi              | 81 02 10 |
| Iraurgi (Betharram)  | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa)  | 8163 80  |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri            | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai    | 81 26 97 |
| Urola BHI            | 15 02 28 |

BESTERIK

|                                      |           |
|--------------------------------------|-----------|
| UGLE (Urolako gay-lesbian.)          | 273 posta |
| Xoxoteko aterpea                     | 58 10 07  |
| Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak |           |

ALDERDI POLITIKOAK

|     |          |              |
|-----|----------|--------------|
| EAJ | 81 55 70 | 943 08 06 88 |
|-----|----------|--------------|

FARMAZIAK (ABUZTUA)

EGUNEZ

|                                          |                      |                     |
|------------------------------------------|----------------------|---------------------|
| 1-3-6-9-12-14-15-16-18-20-23-26-28-29-31 | 2-5-7-8-10-11-13     | 4                   |
| Eizagirre (Azpeitia).                    | Aranburu (Azpeitia). | Alberdi (Azpeitia). |
| 943 811274                               | 943 811350           | 943 815974          |

GAUEZ

|                                    |                            |
|------------------------------------|----------------------------|
| 1-3-4-6-16-17-18-19-20-21-22-30-31 | 5-7-8-12-13-23-24-25-28-29 |
| Eizagirre (Azpeitia).              | Aranburu (Azpeitia).       |
| 943 811274                         | 943 811350                 |

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



LIBURUTEGIA.

Urrestillan, haur eta gazteek erabiltzen duten lokalean adin guztientzako liburuak jarri dituzte. Liburutegia erabili nahi dutenek txartela eskatu beharko dute 943 157161 telefonora deituta.

GARRAIOA

|                |              |
|----------------|--------------|
| ALDALUR        | 943 85 27 18 |
| EUSKO TREN     | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA    | 943 85 11 59 |
| PESA           | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK         | 943 81 13 07 |

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/  
autobusak

|                     |
|---------------------|
| 9-10-11-14-15-26-27 |
| Ruiz (Azkoitia).    |
| 943 851966          |



# J. BEREZIARTUA 'GAZTAÑA'

esataria

“dena egin behar, ezetz esaten ez dakit eta”

Rally sprintak, txirrindularitza probak, herri kirolak... Urteak daramtza kirol ekitaldietan esatari. 📌 **Ainitze Agirrezabala**

**N**olaz hasi zinen esatari lanean?

Orain 20 urte inguru egin nuen debuta. Joxemari Sagardogi Lanbritx zenak Superbikeko Espainiako txapelketa jokatu behar zuela eta, diru pixka bat lortu asmoz taldetxo bat sortu genuen. Hainbat gauzen artean motokrosa antolatu genuen, Ezkerreteregin. Esatari lanak egitera inor ausartzen ez eta hala hasi nintzen. Garai hartan, autokros piratak eta egiteko moda handia zegoen eta, harrezkerro, denetara nik joan behar izaten nuen: Lazkaora, Itziarrera...

**Urtean zenbat ekitaldi aurkezten dituzu?** Hamabost bat. Nire afizioa motorrak eta txirrindularitza dira. Bost rally sprint eta txirrindularitza lau bat karrera aurkezten ditut. Horiez gain, Elkartasun Eguneako koadrilen arteko herri kirol deman neu aritzen naiz hizlari, baita saninaziotako bakailao txapelketan eta mendiko igoera bertikalean ere. Errekortariak asko gustatu ez arren, aurren ea aurkeztuko nuen eskatu zidaten eta han aritu nintzen. Dena egin behar, ezetz esaten ez dakit eta.


**Esatari lana beti euskaraz, ezta?**

Bai. Badut anekdota bat. Euskadiko Karting Txapelketa lehen Azpeitian jokatzeko zen eta epaileak Bizkaiko federaziotik etortzen ziren. Nik dena euskaraz egiten nuen, erderaz egiteko esan zidaten, pare bat aldiz. Pixkat nazkatu ninduten, eta hala esan nien: euskarara hutsean egiteagatik Udalak diru bat ematen zigula eta laguntza hura ez gurela galdu nahi. Derrigorrean euskaraz egin beharra zegoela esanaz isildu nituen.

**Komertzial lana ere egiten duzu, ezta?** Herrian publizitatea bilatzen hiru lagun aritzen gara, baina kontu hori gehiena neuk eramatea dut. Kartelak egin eta herrian pegatzeaz neu arduratzen naiz.

**Bolondres lana al da zurea?**

Euskadiko Karting Txapelketa bi urtetan aurkeztu nuen Olaberrian eta han zeozer pagatu zidaten, baina bestela nik ez dut ezer kobratzen. Dirua eskaini izan didate, baina ez diet hartzen. Jendea nirekin ondo portatzen da: afaria, opariak... eman izan dizkidate. Saltsa horietan ibiltzen den jendea laguna dut eta zer kobratu behar diozu ba...✖



1

1. Ikasberriko kroseean esatari lanak egiten, duela lau bat urte. 2. Tourmaleten (1982). Ikurriñarekin dagoena da. 3. Uztarria aurrean.



2



3

# Dallas Fortworth (eta III)

**H**an ageri dituk bidaide ezgogaideetako batzuk korrika eta presaka. “Horiek nora edo norako esperantzetan zoazak! Hik baino zorte hobea ditek”. Renora eraman behar hinduen hegazkinak hi Dallas Fortworth-era ailegatu baino askoz lehenago alde egin zian. Poliki hoa, etsita. Gaur ez hoa inora. Hegazkin konpainiako langileak bidaia-riok zuzentzen. “Renora nindoan”. “Segi mahai hartara, bertan adieraziko dizute zertan den zure bidaia”. Eta baho. Gaitz erdi, atsegin duk andrazkoa. Biharamuneko hegaldia agindu dik, goizeko 9ak inguruan. “Primeran!”, esan diok, ergel zoro horrek. Egun bat eman duk inon ez. Gasteizko etxetik irten hintzenetik 24 ordu baino gehiago joan dituk, eta inon ere ez hago. “Zure hegaldiaren atzerapena meteorologiari zor zaionez, ezin dizugu gaua igarotzeko ostaturik eskaini, baina aireportu ondoko hotelean hainbateko beherapena egiteko moduan gaituzu”. Ez zagok txarki asmatua! “Meteorologia!”.

Leher eginda hago. Txikituta. Ordu gehiegi airean, hamar mila metroko altueran dantzan, kuxkurtuta. “Hortaz, C eremua gomendatzen dizut. Sofa erosoak dituzu bertan. Geroago, aireportuko langileak joango zaizkizu, tapaki eta ohatila eskaintzen”. “Eskerrik asko, andrea!”. Biharamuneko bidaia-txartela zuzendu duk, maletak ere dagokien bide berrian jarri dituk. Eta C eremura. Eta abiatu haiz eta kilometro erdia ere egingo huen bertan oinez. Azpeitiaren azalera ez, Gasteizena ere badik aireportutzar honek. Hau Texas duk, hi! Hemen beste neurri bat dik munduak... Arrazoi zian andre hark. Erosoagoak dituk sofak. Ez duk jenderik ageri. Bertan jarri haiz, telebista pantailaren aurrean. Saskibaloia. Finalurrekoak. Los Angeles Lakers eta Utah Jazz. Urteak hituan zuzenkorik ikusten ez huela. Hura bukatzearekin batera, hartu eskura jarri diaten tapakia, atera poltsatik ziklista txapela eta jantzi duk, begiak ezkutatzera ino. Eta loooooo!



■■■■■■■■■■miel a. elustondo■■■■■■■■■■

■■■Nagiak atera, puskak bildu eta oinez hasi haiz, mugitu beharra daukak, kafesnea emango diaten tokia bilatu

## Adio Dallas Fortworth

“Goizeko hiruretatik bostak bitartekoa duzu loaldirik inportanteena. Garunak atsedean hartzeko behar-beharrezkoa duen garaia”. Andreak, heurreak –heu haukanak, Arestik bezala esatera–, liburu burutsuak irakurri besterik ez dik egiten azkenaldian. Saiatu haiz eta lortu duk. Loaren mende izan haiz gauerditik goizeko bostak jo arte! Ondoren, mugitzen hasi haiz poliki-poliki, aireportuarekin batera. Nagiak atera, heure puskak bildu eta oinez hasi haiz, mugitu beharra daukak, gimnasia egin, zukua, fruta, kafesnea emango diaten tokia bilatu. Laster hartuko duk Renora eramango huen hegaldia. Orduantxe adio Dallas Fortworth. Oroitzapena besterik ez duk izango. Beti gogoan izango duan aireportua. Hik, izan ere, Euskal Herrian inork baino hobeto ezagutzen dituk –ez Ameriketarik, sekulako deskuidua dik jendeak–, aireportuak baizik!✶







Osasun Arreta Ziurtagiria  
duen Euskal Herriko  
lehengo hortz klinika

## KONPONDU ZURRUNGEN ARAZOA

ZURRUNGENTZAT ETA LOALDIKO APNEARENTZAT TRATAMENDUA

iberotarren plaza 4 behea  
20730 azpeitia gipuzkoa  
t. 943 81 44 50  
f. 943 81 50 52

OrtoApnea, zurrungarik ez egiteko ahoko aparatua

[www.grupohorzkari.com](http://www.grupohorzkari.com)



## UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea  
Tel. 943 81 26 66 • 20730 AZPEITIA

Ziklomotor lizentzia eta gidabaimen guztiak



**Prezio interesgarriak**  
Gidabaimena euskaraz  
ateratzeko aukera

**ONDO PASAU  
SANINAZIYUEK**





eskaintza ezin hobeak  
zure aurrezkiak salbu  
dira gurean



### ASUS K50IJ SX256V

- RAM Memoria 4 GB - P T4400
- Disko gogorra: 320 GB
- DVD±RW Microsoft Windows 7 Home Premium
- Pantaila: 15.6" Panoramikoa TFT 1366 x 768 [ WXGA ]

**499 euro**  
b.e.z. barne



### Toshiba Camileo S10

- Bideo kamera eramangarria
- Definizio altua. Pantaila zabaleko bideo kaptura 5.0 Mpix
- Memoria: MMC, SD, memoria txartela SDHC - flash card

**99 euro**  
b.e.z. barne

**% 30**



**2010 UDA  
MERKEALDIAK**

Santi Iazkano Kirolak  
Azpeitia 943 81 16 50